



## Kalean dira hondakinen bilketarako kamioi berriak

**Tolosaldeko Mankomunitateak** kontratatu berri du eskualdeko 28 herrietarako hiri hondakinen bilketa eta garraio zerbitzua. **Udalerrietan ezarrita dauden hondakinen bilketa sistemetara egokitzen da**, herrigunean zein industrigunean sortzen diren hiri hondakin frakzioak biltzeko.

Esleipenduna **FCC eta Serbitzu Elkarreak** osatutako aldi baterako enpresen elkarte (ABEE) izan da. Kontratuak 4 urtetako iraupena izango du, 3.275.000€tako urteko kostuan.

Guztira **16 kamioi eta ekipo ausiliarrek osatzen dute Tolosaldeko Mankomunitateko flota berria**, hondakinen bilketaz gain edukiontzien garbiketa eta mantenimenduaz arduratuko dira.

### Nabarmentzeko ezaugarriak

Hondakinen bilketa egingo duten kamioi hauek pisaketa sistema daramate inkorporatuta, horrela, hemendik aurrera finkoak diren baskulak erabili gabe, mankomunitatea osatzen duten **herri bakoitzeko hondakin sorreraren datuak pisuan** izango ditugu.

Bestalde, kontutan izanik eskeintzen ditugun zerbitzuak gehienbat herrigunean egiten direla, kalean ditugun ibilgailu berri hauek duten ekipamenduagatik:

- “**kamioi isilak**” kontsideratu genitzazke.
- Elektriakoak **CO2 emisio eta soinu gutxiago** sortzen dute.
- Altuera eta zabalera neurriek **kale artean ibiltzeko eta maniobrak egiteko egokiak** egiten dituzte.
- Jasotako **edukiontzien jarraipena** eta **erruten optimizazioa** egiteko aukera ematen ditugute.

## Albo kargako ekipoa



**CO<sub>2</sub> isurketa eta soinu kutxadura gutxiago.** Albo kargako kamioiak konpaktazio ekipoa elektrikoa dute: CO<sub>2</sub> gasen isurketa eta gasoilaren kontsumoa %20an gutxitzen dira eta soinu emisioa 89dBtako da, ekipoa arruntek dutena baino %10 gutxiago.



**Pisaketa sistema inkorporatuta.** Kajaren elebadorean edukiontzien pisaketa sistema inkorporatu da. Elementu honek aukera emango digu, errutan gauden bitartean, edukiontzi bakoitzaren hondakin sorrera pisuan ezagutzeko. Hori horrela, **auzo eta herri guztietarako gaikako bilketaren datu individualak** lortu ahal izango ditugu.

## Herriguneko hondakinen bilketa pertsonalizatuko ekipoa



**“Kamioi isilak” izateko ezaugarriak dituzte.** Soinu kutsaduraren jatorri nagusia trafikoa izanik, ekipoa hauek isilagoak izateko elementuak dituzte motorrean. Kale artean egiten den bilketa pertsonalizatua, abiadura txikituta, kanpoko soinuaren maila gehienez 71dBtako izango da.

**Kompaktazio maila altuko kamioiak neurri bereziekin.** Kamioien dimentsio bereziak kale arteko mugimendu eta maniobrak erraztuko ditu, kapazitatea mantenduz, estandarrak baino estuagoak baitira (2m.).



Pisaketa sistema inkorporatuta **hondakinen sorrera datuak herriko** lortzeko aukera emango du.

## Industrigunetarako ibilgailuak



Konpaktazio maila eta kapazitate handiko kamioiak dira (25m<sup>3</sup>), “kamioi ixilak” izateko ezaugarriak dituztenak ere.

### **Identifikazio eta pisaketa sistema inkorporatuta.**

Enpresetan jasotako edukiontzien hustuketa maiztasuna, hondakinaren arabera, ezagutuko dugu. Baita ere, herri bakoitzeko industrigunetan jasotako hondakinaren pisua.

## Edukiontzien mantenimendua



Kalean dauden **edukiontzien mantenimendua** arduratuko da herritarrentzako erabilera egoera onean egon daitezen. Horretarako edukiontziek duten pieza eta utilajeen repuestoak eramango ditu konponketa lanak tokian bertan eta ahalik eta azkarren egin ahal izateko.

## Inbertsioak

- Albo kargako 4 ekipo, 25m<sup>3</sup> kapazitatea dutenak, konpaktazio maila altukoak, herriguneko bilketa egingo dute.
- Atzeko kargako 4 ekipo 8m<sup>3</sup> kapazitatea dutenak, herriguneko bilketa pertsonalizatua egiteko.
- Atzeko kargako 3 ekipo 25m<sup>3</sup> kapazitatekoak, industrigunetako gaikako bilketak egingo dituzte.
- Altzari eta bolumen handiko trasteen bilketako kamioi 1.
- Edukiontzien mugimenduak egiteko kamioneta 1
- Edukiontzien garbiketa eta mantenimentua egiteko furgoi 1.
- Jarraipeneko 2 ibilgailu.
- Edukiontzia; 1.050 albo kargakoak eta 3.000 atzeko kargakoak, frakzio desberdinen bilketarako.
- Guztira inbertsioa: 2.682.177,67€